

FUTBOLA



Saezek nahiko lan izango du igandean atzelaldea osatzeko. BASALDUA

Athleticeko zazpi jokalarik ez zuten entrenamenduan parte hartu

RAMON BASALDUA / BILBO

Athleticeko zazpi jokalarik ez zuten atzoko entrenamenduan parte hartu, batzuk gaixorik eta beste batzuk erdi lesionaturik daudelako. Patxi Ripodas nafarra erreperazio ariketak egiten ari den bitartean, Oskar Tabuenka ez zen Lezamako belar gainean aritu. Jokalari honek arazoak ditu hankan eta ezin izango du datorren igandeko partiduan parte hartu. Rafa Alkorta ere ez zen bere kideekin batera entrenatu lesionaturik segitzen duelako. Alkorta ere ez da datorren igandeko hamaikakoan sartuko. Genar Andrinuari dagokionez, zurigorrien kapitainak entrenamendu osoa burutu zuen atzo Lezaman Iñaki Saezen agindutara, arazo txiki batzuk dituen arren. Andrinua gertu egon daiteke datorren igandeko partidurako.

Patxi Iru, Ernesto Valverde eta Andoni Lakabegak ere ez zuten entrenamenduan parte hartu. Lakabeg Lezaman izan zen arren ez zen zelairatu, Gorostidi medikuaren aholkuei kasu egin ondoren. Dena den, hiru jokalarik horiek ez dute inolako arazorik izango datorren igandean

Valladoliden kontra Zorrilla futbol zelaian jokatuko. Jose Manuel Galdames gazteari dagokionez, lehen taldearekin entrenatzen segituko duela esan zuen atzo Iñaki Saezek.

Athleticeko entrenatzaileak sekulako arazoak izan zituen joan zen igandean Cadizen kontrako hamaikakoa osatzeko, defentsari dagokionez bereziki. Andoni Aiarza gaitzuek deialditik kanpo zegoen Andrinua deitzera behartu zuen Iñaki Saez. Partidu honetarako, ordea, Andoni Aiarza zelairatzeko moduan izango da. Gauza berdina gertatzen da Patxi Salinasekin.

Jokalari honek ez zuen atzoko entrenamenduan parte hartu urdailko arazo batzuk zirela eta. Salinas, ordea, hasieratik arituko da igandean Zorrillan. San Mamesen entrenatuko dute gaur zurigorriek, ia ostegunero egiten duten bezala. Saezek partidutxo bat jokatu nahi du eta titularrak, normalean ordezkoen aulkian egoten diren jokalarien kontra jokatuko dute lehen zatian. Bigarrenen, titularrak atsedena hartuko dute eta Bilbao Athleticeko jokalariek izango dira beste hamaikakoa osatuko dutenak.

Pizo aurten ez da Osasunara etorriko

IRUÑA

Azken egunotan esames ugari sortu dira, Pizo Gomez Osasunara itzul daitekeela eta. Fermin Ezkurrak berak, egun Atletico de Madriden jokatzen duen erdilaria berriz ere Iruñera ekartzeko interesa agertu zuen Gabonetan. Ez zen fitxaketa erraza izango, Pizo Gomezek gainerantzeko gorritxoek baino kontratu hobea bait du Madrilan, eta hiru urterako luzatu berria gainera. Eta atzo, Osasunako lehendakariak aurten behintzat eibartarra Iruñera etortzeko aukerarik ez dagoela jakin erazi zuen; «heldu den urtean ikusiko da».

Ezkurra nahiko lasai dago, taldea sailkapenean nahiko behera izanda

ere. «Negatiboen zama astuna da, baina ez da ahaztu behar partidu onak egin ditugula, eta European hain urrun iristeko gai izan bagara, Ligan ere laster helduko da erreazioa». Promozio postuetan eta maila galtzean ez du pentsatu ere egin nahi Osasunako lehendakariak: «Ni oso lasai nago, ez bait dut inolako arriskurik ikusten».

Igandean Logroñes izango dute bisitari Sadarren, eta Ezkurrak taldean aintzina besteko grinarik ez dagoela onartu arren, emaitza ona iragartzen du gorritxoentzat. «Logroñesi irabazi egingo diogu. Egia da jokalariek lasaiegi dabiltzala agian, baina lehen geure taldeak korrika besterik ez zuela egiten esan ohi

Agustin Gajatek ezin izango du Mallorcaren kontra jokatu

Toshackek Burgoseko hamaikako bera zelairatu dezake Atotxan

Agustin Gajate atzelaria jadanik deskartatuta dago Realak igandean Mallorcaren kontra jokatu behar duen partidurako. Gainontzeko jokalariek, Carlos Martinez eta Luis Perez ezik, prest ditu John Toshackek. Galesak Burgosen zelairatu zuen hamaikako bera zelairatu dezake igandean.


MIKEL ARRIETA / DONOSTIA

Realak atzo normaltasunez entrenatu zuen Zubietan. Oceano, Carlos Xavier eta Imaz gaztea ez ziren bertan egon Portugal eta Espainiako selekzioekin kontzentratuta bait daude. Agustin Gajate, Luis Perez eta Carlos Martinezen kasua bestelakoa da. Hiru jokalariek ez dira igandean Mallorcaren kontra jokatuko moduan egongo. Toshack honela mintzatu zen azkenaren egoera fisikoari buruz, «berriz ere belauna minduta du, hobe du datozen egunetan atsedean hartzea».

Agustin Gajate atzelariaren bajak espekulazioetarako bidea ireki du berriz ere. Atzo entrenamenduan ikusitakoaren arabera Toshackek Plantion zelairatu zuen defentsa bera, hau da, Fuentes, Gorriz, Larrañaga, Alaba eta Lunbrerases osaturikoa, erabili dezake igandean. Kontutan eduki behar dugu Toshackek oso positiboki baloratu duela taldeak Burgosen egin zuen lana, «oso joko polita erakutsi zuen taldeak».

BURGOSEN BEZALA JOKATU

Toshackek eraso eta defentsa landu zituen atzoko entrenamenduan, hain zuzen ere hiru erdilariak ez bait zeuden Zubietan. Toshackek honela baloratu zuen Oceano Carlos Xavier eta Imazen falta, «bi balorazio mota egin daitezke. Pertsonalki nahiago dut hemen egotea, denbo-




Toshack 'kexu' da erdilari guztiak kanpoan dituelako. CARLOS VILLAGRAN

raldia hasi zenetik ez bait dugu guztiek elkarrekin entrenatu. Jokalarientzat ordea oso pozgarria da selekzioarekin jokatzea, eta alderdi horretatik ulertu egin behar da».

Datozen bi partiduetan Realak Mallorca eta Españolen, teoriarik bi talde ahulenak, aurka jokatuko du. «Sailkapenari begiratu gero, beraiek dira txarrenak, baina kontu handiz ibili behar dugu. Mallorcak ez du zorte handirik izan denboraldi honetan, baina borroka asko egiten

duen taldea da». Mallorcarenak baino, bere taldearen jokoak kezkatzen du Toshack, «igandean El Plantion jokatu genuen bezala jokatu behar dugu Mallorcaren kontra».

Lehen taldeko jokalariek gehienek gaur jai izango dute, eta bihar guztiak Zubietara itzuliko dira berriz ere Mallorcaren kontrako partidua prestatzeko. Larunbatean ere goizez entrenatuko dute donostiarrak, eta litekeena da entrenamendu hori Atotxako zelaian egitea.



Ezkurra lasai dago, Osasunaren egoera bikaina izan ez arren.